

Hedadura: 2 Km2

Biztanlegoa: 370 biztala

Jaiak:

■ Herrikoak: Abuztuarefi Toean, San Lorentzo.

Oria ibaiaren erdiko tartean lekutzen da udalerria, Legorreta eta Alegia artean, ibaiak bihurgune handiak egiten dituen eremuan. Izenaren etimologiak "Ikatz-tegieta", mea honen ugaltasuna adierazten duenak, biztanlegune hau estu-estuan bere ingurugunearekin lotuko luke: Aralarko muino eta Aizkorriko mendi saihestetatik jaisten diren ibar eta isurkiak, bertako mendi eta basoen erabateko ustiakuntza egiten delarik. Nekez izan daiteke halabeharria ikatza bezalako gai batek biztanlegune bati izen ematea, inguruko eremuetatik mea hau hartzeko nahiz bestelako biztanlegunetara bidaltzeko baldintza ezin hobeak izanik.

1374era arte ez zaio herrixka honi agirieta inolako aipamenik egiten. Data honetan, Baliarrain, Orendain eta Ikaztegieta parrokiek, Tolosarekin egindako Auzotartze Idazkia dela eta aipatzen da. Beharbada, Ikaztegieta XIV, XV eta XVI. mendeetan beharrezko gerta zekioken auzotartze hau 1615ean urratu zen Erret Ogasunari 11.374 erreald ordaindu ondoan. Hiribildutasunak, Tolosarekin auzotartua egon zen boladan guztiz galdu ez zuen autogobernua berreskuratzea ekarri zion.

Bereizketa honen ondorioz sortutako gastuei aurre egiteko Alegia eta Orendainekin batera Aizpuruako Batura osatu zuen. Honela bada, Probintziako Biltzar Partikular eta Nagusietan ordezkari bat izateak eragiten zuen gastua guztiek batean ordaindu ahal izan zuten. 1824 eta 1846 bitartean Ikaztegieta batura hau utzi zuen. 1960an Orendain eta Baliarrainekin batera Iruerrieta-ko udalerria osatu du, bizitza motzekoa gertatu dena.



Biztanleguneak Gipuzkoako geografian ohizko den tajuketa azaltzen du. Dezenteko hedadura duen ibai-arro baten ertzean, Oria ibaiarenean, dagoen goigune batean zutitzen da.

Egungo morfologia, batik bat, hiri-faktore berrien ondorio da: Norteko trenbidearen igarogunea, XIX. mendearen erdi aldera eraikia eta N-1 errepidea. Komunikabide hauetako joan-etorriak herriaren gune den multzoa bakantzea ekarri du zabalgunen modernoaren aldean.

San Lorentzo Parroki-Eliza (30-40) apala da, "euskal gotikoa" delako estiloan barne hartzen dena. Oinplano angeluzuzena eta gurutzeriazko gangak ditu, ezarritako dorrea, arkupea eta sakristiarekin batean. Neurritzukia da, abside laua, kapera nagusia eta bi zatitako nabea ditu. Azkenekoaren gainean korua zutitzen da, eraikuntza modekokoa. Kalitate oneko erretaula biltzen du.

XVI. mendean ekin zitzaion eliza eraikitzeke lanei, hauen inguruko zuzeneko erreferentziarik ez daukagun arren. Badakigu



San Lorentzo parroki-eliza.

1600ean kapera nagusiaren eraikuntza-lanekin jarraitzeko agindu ematen dela, urte batzuek lehenagotik hasia zegoena. Roman Eizagirreraren esku utzi zen lana.

Eizagirrek jatorrizko tajuketa aldatu nahi izan zuen eta ondorioz, bere egitekoetan baztertu eta Francisco Landak ordezkatu zuen, eraikuntza-lanei 160letik aurrera ekin zielarik. Arkupea 1866an eraiki zen.

Apaizetxea inguruan lekutzen da (30-40) eta bereizgarri gisara eguzki-orratz bat dauka, egin zenekobata duena: 1864.

Udaletxeak (30-42) ez du arkitekturezazugarri nabarmenik, errepide ertzean luzatzen diren artean etxe arrunt bat delarik. Hauekiko lerrotua, Aitu Zahar baserritik (30-43) gertu dago, oinetxe zahar bat da honako haul armarraria duenik ere asmatzen nekeza, gerora egindako estalpe baten atzean ezkutuan bait dago. Udalerrian bada beste armarridun etxe bat ere, Larunbe baserria (30-44) hain zuzen. Fatxadako armarriaz gain, erdi-puntuko bi arkuk edertzen duten sarrera-atarte bat ere badu. Lizartzak (30-37) ere halakoxe sarrera du, hegoalderantz begira lekturik eguzki-begi egitekoak beteaz.

Iturrioz (30-38) aspaldi-aspaldidanik Ikaztegieta sagardotegi izan da. Duen tradizio luze honegatik besterik ez bada ere merezi du udalerrira honetako ondare historikoaren zerrendan barne-hartzea.

Errepide ondoan, Legorreta alderantz eginda, Pilarko Andra Mariaren baseliza dago (30-39). XIX. mendean eraiki zen, trenbidea egin zenean desagertu zen antzinagoko eraikuntzaren orde.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

